

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

4/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «4/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2020ko azaroaren 6a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (5890)

HITZAURREA

Kontuan hartuta, batetik, Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 10.34 artikulua eta, bestetik, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, 7.a) artikulua 8. atalean xedatutakoa, Foru Aldundiaren eskumena da errepideak planifikatu, proiektua egin, eraiki, artatu, aldatu, finantzatu, erabileraz arduratu eta ustiatzea.

Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak (ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileak onartutakoak) honako hau xedatzen du 38. artikuluan: «1. Herritar guztiek daukate Gipuzkoako errepide eta bideetan barrena ibiltzeko eskubidea, trafiko eta zirkulazioari buruzko lege, arau eta seinaleak errespetatuz. 2. Bidesaria edo erabilpen eskubideengatik sari bat ezarri ahal izango da Gipuzkoako errepide eta bideetan barrena ibiltzeagatik.»

Urriaren 3ko 7/2002 Foru Arauaren bidez, bide azpiegiturak erabiltzeagatik Gipuzkoa osoan eska zitekeen kanona sortu zen, «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA» (aurrerantzean, Bidegi SA) foru sozietate publikoak bide azpiegiturretan egingo dituen jarduketak finantzatzeko.

Bere estatutuetan xedatzen denez, foru sozietate publiko horren objektu soziala osatzen duite A-8 autobideak (Bilbo-Behobia), A-1 autobideak (Eibar-Gasteiz) eta beste autobide eta ahalmen handiko errepideek.

Gure lurraldea zeharkatzen duten Europaz gairako bi ardatz nagusiek (AP-8/AP-1 eta A-15/N-I) zerbitzua eman behar diete bai lurraldeko bertako mugikortasun beharrei bai bere kokapen geografiko eskatutakoei, Gipuzkoa puntu estrategiko bat baita Iberiar penintsularen iparretik hegora Europako gainetarako lotzeko.

Beasain eta Bergara artean A-636 autobiarri amaiera ematen dion Antzuola-Bergara zatia irekita, zeinak hasiera batean

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del Territorio Histórico de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 6 de noviembre de 2020.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (5890)

PREÁMBULO

De conformidad con el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 7.a) apartado 8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, es competencia foral la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras.

El artículo 38 del Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral Normativo 1/2006, de 6 de junio, dispone que: «1. Todos los ciudadanos tienen el derecho a transitar por las carreteras y caminos de Gipuzkoa conforme a su destino y de acuerdo con las leyes, normas y señales de tráfico y circulación. 2. El tránsito por las carreteras y caminos de Gipuzkoa podrá someterse al pago de peaje o derechos de uso.»

Por Norma Foral 7/2002, de 3 de octubre, se creó el canon de utilización de infraestructuras viarias exigible en todo el territorio de Gipuzkoa para la financiación de las actuaciones de política de infraestructura viaria que realice la sociedad pública foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.» (en adelante, Bidegi SA).

De acuerdo con sus estatutos, el objeto social de la citada sociedad pública foral se refiere a la Autopista A-8, Bilbao-Behobia, a la Autopista A-1, Eibar-Vitoria, y a otras autopistas y vías de alta capacidad.

Al ser Gipuzkoa un punto estratégico de conexión norte-sur de la península ibérica con el resto de Europa, los dos principales ejes transeuropeos que la atraviesan, AP-8/AP-1 y A-15/N-I, tienen que dar servicio a las necesidades de movilidad del propio territorio al tiempo que a las exigidas por su ubicación geográfica.

Con la puesta en servicio del tramo Antzuola-Bergara que culmina la autovía A-636 entre Beasain y Bergara, con un reco-

eskualdeen arteko loturetarako trafikoari erantzuna ematen baitio, lehen aipatutako Europaz gaindiko bi ardatz horiek zehar-kako ardatz batekin lotuta gelditzen dira hegoaldean.

Horri esker, Gipuzkoak autobideez eta ahalmen handiko errepideez (AP-8, AP-1, A-15, N-1 eta A-636) osatutako Lehentasuneko Errepide Sare bat dauka, «Gipuzkoako biribilgunea» bezala ezagutzen den eratzuna eratuz.

Ahalmen handiko errepideak eratzun forman antolatzeak lurraldearen irisgarritasun maximoa ahalbidetzen du; eta, aldi berean, malgutasun gehigarria ematen du, ibilbide luzeko gainerako ardatzetan gerta daitezkeen ezusteko gorabeheri erantzuteko.

AP-8/AP-1 ibilbidean aspalditik ordaindu behar da bidesaria, baina Gipuzkoako Lurralde Historikoko ahalmen handiko A-15/N-1 ibilbidean 2018ko urtarrilean ezarri zen kanona, zati batzuk erabiltzeagatik, soilik errepideko salgaien garraioan aritzen diren edo garraiorako diren ibilgailuentzat; betiere, 3,5 tona baino gehiagoko gehieneko pisu baimendua dutenentzat. Kanon hori ezarri zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/EB Zuzentarauak, azpiegitura batzuk erabiltzeagatik salgaien garraioa ibilgailu astuneiki kargak ezartzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

Koherentziagatik eta sarearen uniformetasunagatik, uste du-gu, alde batetik, neurri eraginkorrena, bidezkoena eta koherenteena dela erabileragatik ordainketa sistema bat ezartzea zehar-kako korridorean (A-636 autobia), motordun ibilgailu guztientzat, motozikletentzat izan ezik, sistema ireki baten arabera, N-1 eta A-15 errepideetako zenbait zatitan jada ezarrita dagoenaren antzeko teknologiarekin (free flow); izan ere, horrela errepidean jarriko diren arkuek identifikatu egingo dituzte ordainpeko tartee-tatik zirkulatzen duten ibilgailuak, egin dituzten ibilbideei dago-kien zenbatekoa egotziz. Neurri hori bat dator, batetik, Batzar Nagusien talde txostengileak, Gipuzkoan errepideak kudeatzeko sistema aztertzeakoak, 2010eko martxoaren 4ko bileran onetsi-tako txostenarekin, eta bestetik, Europako 1999/62/EB Zuzen-tarauaren irizpideekin.

Horrek, aldi berean, azpiegiturak eraiki, mantendu, artatu eta ustatzeak sortzen dituen kostuak ikusaraziko ditu, azpiegi-tura horien erabiltzaileei kargatuz; lurraldearen barne oreka-rako faktoreak sartuko ditu; eta gure errepideek behar dituzten artapen eta Kudeaketa lanen kostuak berreskuratzen lagundu-du du.

Kanonaren zenbatekoak azpiegitura kostuak berreskuratzeko printzipioa oinarri hartuta ezarri dira. Zehazki, kanonaren zenbatekoak zuzeneko lotura izango du azpiegituraren eraikun-tza kostuekin eta ustiaketa kostuekin, kanona kudeatzeko kos-tuekin eta sarea garatu, hobetu eta mantentzeko kostuekin, egi-tura konpontzeakoak barne. Horrela, erabileraren ondorioz jasan-dako narriadura arindu eta zerbitzu maila ezin hobea mantendu nahi da, bai eta Bidegi SAK egiten dituen bide azpiegiturako poli-tiken jarduketak finantzatzen lagundu ere.

Bestalde, bidezkotzat jotzen da A-636 autobian, errepidea erabiltzeagatik ordainketa araubidea ezartzearekin batera, Gi-puzkoako Lurralde Historikoko AP-8 eta AP-1 autobideetan ibil-gailu arinen erabiltzaile diren pertsona fisikoei aplikatzen zaiz-kien hileko deskontu gorakorrek eta hileko gastu mugak ere aplikatzea, baldin eta baldintza batzuk betetzen badituzte. Des-kontu horiek araututa daude ekainaren 15eko 4/2010 Foru De-kretu-Arauan: 2. eta 3 bis artikuluetan, hain zuzen ere.

Kontuan hartuta Europako Parlamentuaren eta Kontsei-luaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babe-sari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Da-tuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), interes publikoko helburua, lortu nahi den xede legitimoaren arabera, betetze aldera egiten den datuen tratamenduari buruzko xedapen espe-zifikoa jasotzen ditu foru arau honek.

rrido que en principio sirve a demandas de tráfico de conexión intercomarcal, esos dos ejes transeuropeos quedan unidos por el sur con un eje transversal.

El resultado es que Gipuzkoa dispone así de una Red de In-terés Preferente de carreteras compuesta por autopistas y vías de alta capacidad (AP-8, AP-1, A-15, N-1 y A-636) que conforman un anillo conocido como «rotonda de Gipuzkoa».

Esta disposición de carreteras de alta capacidad en anillo facilita la máxima accesibilidad del territorio al tiempo que aporta una flexibilidad adicional para responder ante inciden-cias imprevistas en el resto de los ejes de largo recorrido.

La ruta AP-8/AP-1 está desde hace años sujeta al pago de pea-jes, mientras que en la ruta de alta capacidad A-15/N-1 del Territo-rio Histórico de Gipuzkoa se ha implantado en enero de 2018 el canon de utilización de determinados tramos para vehículos desti-nados o utilizados exclusivamente para el transporte de mercan-cías por carretera y con un peso máximo autorizado superior a 3,5 toneladas, de acuerdo con la Directiva 1999/62/CE del Parla-mento Europeo y del Consejo de 17 de junio de 1999 relativa a la aplicación de gravámenes a los vehículos pesados de transporte de mercancías por la utilización de determinadas infraestructuras.

Por coherencia y uniformidad de la red, se considera que la medida más eficaz, justa y coherente tanto con el informe de la ponencia de las Juntas Generales de Gipuzkoa para analizar el sistema de gestión de carreteras a implantar en Gipuzkoa (apro-bado en reunión celebrada el día 4 de marzo de 2010), como con los criterios de la Directiva 1999/62/CE, es implantar en el corredor transversal, autovía A-636, un régimen de pago por uso que afectará a todos los vehículos a motor excepto motoci-cletas, con arreglo a un sistema abierto, y con una tecnología free flow similar a la ya establecida en determinados tramos de la N-1 y A-15, de tal modo que los vehículos que circulen por los tramos sujetos a pago serán identificados en los distintos pórti-cos situados sobre la vía, imputándoseles el importe correspon-diente a los trayectos realizados.

Esto permitirá, al mismo tiempo, hacer visibles los costes generados por la construcción, el mantenimiento, la conserva-ción y la explotación, trasladándolos a quienes usen las infraes-tracturas; introducir factores de equilibrio territorial interno y re-cuperar los importantes costes de conservación y gestión que nuestras carreteras requieren.

Las cuantías del canon se determinan en base al principio de recuperación de los costes de infraestructura. En particular, la cuantía del canon está directamente relacionada con los cos-tes de construcción de la infraestructura y con los costes de ex-plotación, gestión del canon, desarrollo y mejora de la red y mantenimiento, incluida la reparación estructural. De esta ma-nera, se pretende paliar el deterioro sufrido por el uso y mante-ner un nivel óptimo de servicio, así como contribuir a la finan-ciación de las actuaciones de política de infraestructura viaria que efectúe Bidegi SA.

Por otro lado, se considera procedente que la implantación del régimen de pago por uso en la autovía A-636 conlleve apli-car a las personas físicas usuarias de vehículos ligeros que cumplan una serie de requisitos, los descuentos crecientes en función del uso mensual y el límite mensual de gasto aplicables en las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gi-puzkoa, que se encuentran regulados en los artículos 2 y 3 bis del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio.

En los términos exigidos en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que res-pecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Re-glamento General de Protección de Datos), la presente norma foral incluye disposiciones específicas relativas a su trata-miento, en cumplimiento de un objetivo de interés público y pro-porcional al fin legítimo perseguido.

Arau honek free flow sistemak lortutako eta sortutako informazio pertsonalaren Kudeaketari buruzko zehaztapenak errepikatzen ditu; horretarako, datu pertsonalen tratamenduaren eraginpean dauden agertokiak identifikatzen ditu; eta, artikuluetan zehar, arlo honetan eskatzen diren edukia deskribatzen ditu, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetz.

Azkenik, kontuan hartuta ezen kobrantza-sistema ezartzeak izapidetze eta garapen konplexuak eskatzen dituela hura balidatu arte, bidezkotzat jotzen da Diputatuen Kontseiluari baimena ematea berak erabaki dezan zein egunetatik aurrera izango duten erabiltzaileek kanona ordaintzeko betebeharra.

Foru araua honela egituratzen da: 18 artikulua, bi titulutan banatuta, bi xedapen gehigarri eta amaierako bi xedapen.

Lehenengo tituluan kanonaren kobrantza arautzen da; bigarren tituluan, berriz, sistemak eskuratutako datuen tratamendua aurreikusten da.

Lehenengo xedapen gehigarriak kobratzen noiz hasi erabakitzeko baimena ematen dio Diputatuen Kontseiluari; hala ere, hori ez da izango 2022ko ekainaren 30a baino beranduago.

Bigarren xedapen gehigarriak adierazten du kanona ordaindu behar den A-636 autobian zati-tati erabiltzaileei aplikatuko zaizkiela ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu-Aruak aurreikusitako deskontuak eta hileko gastu muga. Foru arau-dekretu horrek finkatzen ditu AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian 2010eko uztailaren 1etik aurrera erabiltzeko kanonaren zenbatekoak.

Azkenik, amaierako lehen xedapenak ahalmena ematen dio Diputatuen Kontseiluari foru arau hau garatzeko; eta bigarrenak, aldiz, foru araua indarrean noiz jarriko den xedatzen du.

Azaldutakoarekin bat etorritik, foru arau honen helburua da Gipuzkoako bide azpiegiturak behar bezala kudeatzen laguntzea, Kudeaketa horrek berekin dakarren interes publikoko mekanismo gisa.

I. TITULUA

KANONAREN KOBRANTZA ARAUTZEA

1. artikulua. Xedea.

Foru arau honen xedea honakoa da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepedeen Katalogoan sartuta dagoen A-636 autobian (Beasaindik Durangora, Kanpanzarren barrena), Beasain eta Bergara artean, bide zati batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona arautzea.

2. artikulua. Kanonaren ordainpeko zatiak.

A-636 autobian, Beasain eta Bergara artean, hauek dira hemen arautzen den kanonaren ordainpeko zatiak:

– Hasi Beasainen (0,000 KP) eta Ormaiztegi lotuneraino (2,800 KP).

– Hasi Alegiko lotunean (Ormaiztegi) (5,000 KP) eta Zumarragako lotuneraino (10,400 KP).

– Hasi Urretxu/Legazpiko lotunean (12,500 KP) eta Bergarako Ekialdeko lotuneraino (19,800 KP).

3. artikulua. Ordainpeko ibilgailuak.

Foru arau honetan araututako kanona aplikatuko zaie kanonaren ordainpeko bide zati-tati dabiltzan ibilgailu motorduneei edo ibilgailu talde artikulatuei, motozikletei izan ezik.

4. artikulua. Salbuespenak.

Ez daude behartuta kanona ordaintzera:

Esta norma es respetuosa con las especificaciones relativas a la gestión de la información personal obtenida y generada por el sistema free-flow, identificando a tal efecto los escenarios que se encuentran afectados por el tratamiento de datos personales y describiendo a lo largo de su articulado los contenidos exigidos en esta materia en cumplimiento del Reglamento General de Protección de Datos.

Finalmente, dado que la implantación del sistema de cobro requiere una tramitación y un desarrollo complejos hasta su validación final, se considera procedente autorizar al Consejo de Gobierno Foral para que determine la fecha a partir de la cual las personas usuarias tendrán la obligación de abonar el canon.

La norma foral se estructura en 18 artículos, distribuidos en dos títulos, dos disposiciones adicionales y dos disposiciones finales.

El título primero aborda la regulación del cobro del canon y el título segundo se refiere al tratamiento de los datos obtenidos por el sistema.

La disposición adicional primera autoriza al Consejo de Gobierno Foral para determinar la fecha de inicio de cobro, que no podrá ser posterior al 30 de junio de 2022.

La disposición adicional segunda declara de aplicación para las personas usuarias de los tramos de la autovía A-636 sujetos a pago de canon los descuentos y el límite mensual de gasto previstos en el Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a partir del 1 de julio de 2010.

Por último, la disposición final primera faculta al Consejo de Gobierno Foral para el desarrollo reglamentario de esta norma foral; y la segunda se refiere a la entrada en vigor de la misma.

De acuerdo con lo expuesto, esta norma foral tiene como finalidad coadyuvar a la adecuada gestión de las infraestructuras viarias en Gipuzkoa, como mecanismo de interés público implícito en dicha gestión.

TÍTULO I

REGULACIÓN DEL COBRO DEL CANON

Artículo 1. Objeto.

La presente norma foral tiene por objeto regular el canon de utilización de diversos tramos entre Beasain y Bergara de la autovía A-636 «De Beasain a Durango por Kanpanzar» incluida en el Catálogo de la Red de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 2. Tramos sujetos al pago del canon.

Los tramos de la autovía A-636 entre Beasain y Bergara sujetos al pago del canon objeto de la presente regulación son:

– Tramo entre Beasain (P.K. 0,000) y el enlace de Ormaiztegi (P.K. 2,800).

– Tramo entre el enlace de Alegi (Ormaiztegi) (P.K. 5,000) y el enlace de Zumarraga (P.K. 10,400).

– Tramo entre el enlace de Urretxu /Legazpi (P.K. 12,500) y el enlace de Bergara Este (P.K. 19,800).

Artículo 3. Vehículos sujetos al pago.

El canon regulado en la presente norma foral será de aplicación a todos los vehículos de motor o conjunto de vehículos articulados, excepto a las motocicletas, que transiten por tramos sujetos al pago del canon.

Artículo 4. Exenciones.

Se establecen las exenciones del pago del canon para los siguientes vehículos:

a) Ertzaintzaren eta gainerako segurtasuneko indar eta erdiegoen ibilgailuak, eta A-636 autobian zerbitzuren bat egin behar duten agintari judizialen ibilgailuak.

b) Anbulantziak eta suhiltzaileen ibilgailuak, A-636 autobian zereginen bat egiten ari badira.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibilgailuak eta Bidegi SAREN ibilgailuak, baldin eta bi kasuotan A-636 autobia kontrolatu eta mantentzeaz arduratzen badira.

d) A-636 autobia azpiegitura artatu eta mantentzeko lanak adjudikatuta dituzten enpresen ibilgailuak, A-636 autobia artatu eta mantentzeaz arduratzen badira.

5. artikulua. Sistemaren definizioa.

Ibilgailuak detektatzeko, identifikatzeko eta haiei kanona egozteko, free flow motako sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailuak gelditu gabe.

6. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

1. Foru arau honen 3. artikuluan aipatzen diren ibilgailuekin A-636 autobian kanonaren ordainpeko zatietatik dabilizan erabiltzaileak behartuta egongo dira 8. artikuluan ezarritako kanonari dagokion zenbatekoa ordaintzera, 4. artikulua araberako salbuetsita ez badaude behintzat.

2. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek hura baldintza operatiboetan erabiltzea ahalbidetzen duten baliabide teknikoak eduki behar dituzte; edo, bestela, matrikula ordainbide batekin lotzea ahalbidetzen duen informazioa eman beharko dute, Bidegi SAK argitaratutako web informazioaren arabera.

7. artikulua. Arkuak eta ibilbideen esleipena.

1. Kobrantza gauzatu ahal izateko, 2. artikuluan deskribatzen diren ordainpeko bide zatietan ondoren zehazten diren arkuak jarriko dira. Arku bakoitzari bide zati eta ibilbide luzera jakin bat esleitzen zaio, honela:

a) Beasaingo arkuak:

– Zatia: Beasain - Ormaiztegi.

– Luzera: 2,8 kilometro.

b) Ezkioko arkuak:

– Zatia: Ormaiztegi - Zumarraga.

– Luzera: 5,4 kilometro.

c) Deskargako arkuak:

– Zatia: Legazpi/Urretxu - Bergara.

– Luzera: 7,3 kilometro.

– Irteera/sarrera Antzuolako erdilotunean: 2,50 kilometro.

2. «Legazpi/Urretxu - Antzuolako erdilotunea» ibilbidea aplikatu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da ibilgailuak TAG gailu bat erabiltzea bidaia ordaintzeko.

8. artikulua. Kanonaren zenbatekoak.

Hauek dira aplikatuko diren kanonaren zenbatekoak (BEZA barne):

a) Los vehículos de la Ertzaintza y demás cuerpos y fuerzas de seguridad, y los de las Autoridades Judiciales que hubieran de cumplimentar algún servicio en la autovía A-636.

b) Los vehículos ambulancias y los de los servicios contra incendios cuando realicen alguna misión en la infraestructura viaria de la autovía A-636.

c) Los vehículos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de Bidegi SA, en ambos casos, destinados al control y mantenimiento de la infraestructura de la autovía A-636.

d) Los vehículos de las empresas adjudicatarias de la conservación y mantenimiento de la infraestructura de la autovía A-636 destinados a su conservación y mantenimiento.

Artículo 5. Definición del sistema.

Para la detección, identificación e imputación del canon a los vehículos se implantará un sistema abierto free flow, sin detención de vehículos.

Artículo 6. Obligaciones de las personas usuarias.

1. Las personas usuarias que circulen por los tramos de la autovía A-636 sujetos a pago del canon con los vehículos mencionados en el artículo 3 y que no estén exentos conforme al artículo 4 tienen la obligación de abonar el importe correspondiente del canon establecido en el artículo 8.

2. Para abonar el canon, las personas usuarias deberán disponer de los medios técnicos que posibiliten su uso en condiciones operativas, o deberán facilitar la información que permita asociar la matrícula con un medio de pago, de acuerdo con la información web publicada por Bidegi, SA.

Artículo 7. Pórticos y asignación de tránsitos.

1. En los tramos sujetos al pago del canon descritos en el artículo 2 se ubicarán, a los efectos del cobro, los pórticos que se detallan, a los que se les asignan los siguientes tramos y longitudes de tránsito:

a) Pórtico de Beasain:

– Tramo Beasain - Ormaiztegi.

– Longitud: 2,8 kilómetros.

b) Pórtico de Ezkio:

– Tramo Ormaiztegi - Zumarraga.

– Longitud: 5,4 kilómetros.

c) Pórtico de Deskarga:

– Tramo Legazpi/Urretxu - Bergara.

– Longitud: 7,3 kilómetros.

– Con salida/entrada en el semienlace de Antzuola: 2,50 kilómetros.

2. Para la aplicación del tránsito «Legazpi/Urretxu - semienlace de Antzuola», será condición imprescindible que el vehículo utilice como medio de pago del viaje un dispositivo TAG.

Artículo 8. Cuantías del canon.

Las cuantías del canon (IVA incluido) a aplicar serán las siguientes:

Ibilbidea / Recorrido	Kilometroak / Kilómetros	Ibilgailu arinak / Vehículos ligeros	Ibilgailu astunak 1 / Vehículos pesados 1	Ibilgailu astunak 2 / Vehículos pesados 2
Beasain - Ormaiztegi	2,8	0,38 €	0,61 €	0,78 €
Ormaiztegi - Zumarraga	5,4	0,74 €	1,18 €	1,50 €
Legazpi/Urretxu - Bergara	7,3	1,41 €	2,32 €	2,87 €
Legazpi/Urretxu - Antzuola	2,5	0,48 €	0,79 €	0,98 €

9. artikulua. Ibilgailuen sailkapena.

1. Foru arau honek ezarritako kanonaren ondorioetarako, ibilgailuak edo ibilgailu talde artikulatuak honela sailkatzen dira:

– Arinak: 3,5 tonako edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.

– Astunak 1: 3,5 tona baino gehiagoko eta 12 tona baino gutxiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.

– Astunak 2: 12 tonako edo gehiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.

2. Sailkapen efektiborako, hau da, ibilgailu mota bakoitza hiru kategoria horietako batean sailkatzeko, ibilgailuaren bolumenaren eta gehieneko masa baimenduaren (GMB) arteko korrelazio bat ezarriko du sistemak, irizpide bolumetrikoen araberak (luzera, zabalera eta altuera).

Gehieneko masa baimenduaren (GMB) eta bolumenaren arteko korrelazioa ez bada zuzena, gehieneko masa baimenduak (GMB) izango du lehentasuna; eta, behar izanez gero, aplikatutako tarifa berriro kalkulatu da, kanona kudeatzen duen enpresa edo, hala badagokio, Bidegi SA korrelazioa okerra dela konturatu eta 10 egun balioduneko epean, gehienez.

3. Antzeko bolumena baina gehieneko masa baimendu desberdina duten ibilgailuen korrelaziorako, Bidegi SAK matrikularen eta kategoriaren erregistro bat edukiko du, erabiltzaileentzat borondatezkoa izango dena.

10. artikulua. Ordainbideak.

Ordainbide hauek ezartzen dira foru arau honetan arautzen den kanona ordaintzeko:

a) TAG gailua.

b) Erregistro telematikoa, Bidegi SAREN webgunearen bidez, garatu daitezkeen beste sistema telematikoen bidez, banku txartela edo erregistro telematikoak etorkizunean onar dezakeen beste edozein ordainbide adieraziz.

c) AP-8 edo AP-1 autobideetako ordainleku bideratuetan erabilitako banku txartela, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez zehaztutakoaren arabera.

11. artikulua. Kanona ordainaraztea, kudeatzea eta biltzea.

Bidegi SA foru sozietate publikoari dagokio kanona ordainaraztea, kudeatzea eta biltzea.

Dena den, Bidegi SAK hirugarren baten esku utzi ahal izango du kanonaren kobrantza kudeatzea.

12. artikulua. Kanona ez ordaintzea.

1. Bide azpiegitura erabiltzen den unean kanona ordaintzen ez bada, kanona kudeatzen duen erakundeak dagozkion izapideak egingo ditu hura kobratzeko, Kudeaketa errekarua gehituta. Errekargu hori zordundutako kanonaren % 20 izango da.

2. Bide azpiegitura erabili den datatik bi hilabete igaro ondoren zorra ordaindu gabe baldin badago, kanona ordainarazteaz arduratzen den erakunde kudeatzaileak salaketa igorriko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, zehapen espedienteak hasi dezan eta, bidezko diren bilketa prozeduren bidez, ordaintzeke dagoen zorra eska dezan, ordaindu gabeko Kudeaketa errekarua barne.

3. Egitate horiek egiaztatzeko, azpiegituran instalatutako edozein sistema edo bitarteko tekniko, mekaniko edo irudi-errepuzitzaile erabili ahal izango da, ibilgailuak argi eta garbi identifikatzen baditu. Irudi hori frogabidea izango da salaketan.

13. artikulua. Kanona ez ordaintzeagatiko arau-haustea.

1. Arau-haustea arina izango da kanona eta haren Kudeaketa errekarua ez ordaintzea azpiegitura erabili den datatik bi hilabeteko epean.

Artículo 9. Clasificación de vehículos.

1. A los efectos del canon establecido por la presente norma foral, la clasificación de los vehículos o conjunto de vehículos articulados es la siguiente:

– Ligeros: Vehículos a motor con masa máxima autorizada (M.M.A.) menor o igual a 3,5 toneladas.

– Pesados 1: Vehículos a motor con masa máxima autorizada (M.M.A.) superior a 3,5 toneladas y menor de 12 toneladas.

– Pesados 2: Vehículos a motor con masa máxima autorizada (M.M.A.) igual o superior a 12 toneladas.

2. Para la clasificación efectiva de cada tipo de vehículo en una de las tres categorías, el sistema establecerá, mediante criterios volumétricos (longitud, anchura y altura), una correlación entre el volumen y la masa máxima autorizada (M.M.A.) del vehículo.

Si la correlación entre la masa máxima autorizada (M.M.A.) y el volumen no es correcta, primará la masa máxima autorizada (M.M.A.); y se procederá, si fuera el caso, al recálculo de la tarifa aplicada en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la constatación por parte de la empresa gestora del canon, o en su caso, Bidegi SA, de la incorrecta correlación.

3. Para la correlación de vehículos de similar volumen pero masa máxima autorizada diferente, se habilitará por Bidegi SA un registro optativo de la matrícula y categoría por parte de las personas usuarias.

Artículo 10. Medios de pago.

Se establecen los siguientes medios de pago para el abono del canon regulado en la presente norma foral:

a) Dispositivo TAG.

b) Registro telemático a través del sitio web de Bidegi SA u otros sistemas telemáticos que, en su caso, se desarrollen, con indicación de la tarjeta bancaria u otros medios de pago que el registro telemático admita en el futuro.

c) Tarjeta bancaria utilizada en las estaciones de cobro del peaje canalizado de la autopista AP-8 o de la autopista AP-1, que determine el Consejo de Gobierno Foral mediante acuerdo.

Artículo 11. Exacción, gestión y recaudación del canon.

Corresponde a la sociedad pública foral Bidegi SA la exacción, gestión y recaudación del canon.

No obstante, Bidegi SA podrá encomendar a un tercero la gestión del cobro del canon.

Artículo 12. Impago del canon.

1. Si no se abonase el canon en el momento en que se utilice la infraestructura viaria, se realizarán los trámites pertinentes por parte de la entidad gestora del canon para su cobro, incrementado con un recargo de gestión. Este recargo será del 20 % del canon adeudado.

2. Transcurridos dos meses desde la fecha del tránsito sin que haya sido abonada la deuda, la entidad gestora encargada de la exacción del canon remitirá la preceptiva denuncia a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que proceda a la incoación del expediente sancionador, así como a la exigencia, por los procedimientos de recaudación procedentes, de la deuda pendiente de pago, que incluirá el recargo de gestión no abonado.

3. Para acreditar tales hechos podrá utilizarse cualquier sistema o medio técnico, mecánico o de reproducción de imagen instalado en la infraestructura que identifique claramente a los vehículos. Dicha imagen constituirá medio de prueba en la denuncia.

Artículo 13. Infracción por impago del canon.

1. Constituye infracción leve el hecho de no abonar el canon y su recargo de gestión en el plazo de dos meses desde la fecha del tránsito.

2. Arau-hauste horri Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuan xedatutakoaren arabera aplikatuko zaio.

3. Kanona ez ordaintzearen erantzulea ibilgailuaren titularrak izango da; edo ohiko gidaria, baldin eta epe luzeko errentamendua Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan jasota badago.

14. artikulua. Biltzen diren funtsen erabilera.

1. Ibilgailu motordunen edo ibilgailu artikulatuen multzoen joan-etorriengatik bildutako funtsak, salgaiak errepidez garraiatzeko baino ez badira eta 3,5 tonatik gorako baimendutako gehiezeko pisua badute, erabiliko dira sistemaren eragiketa-kostuak eta A-636 autobiarene azpiegituraren kontserbazio arrunteko eta bereziko kostuak ordaintzeko, bai eta azpiegitura hori eta hari lotutako zerbitzuak hobetzeko ere.

2. Bildutako gainerako funtsak, aurreko paragrafoan adierazitakoa finantzatzeaz gain, bide-azpiegituraren politikaren barruan Bidegi SAK egiten dituen jarduerak finantzatzeko erabiliko dira, urriaren 3ko 7/2002 Foru Arauaren 2. artikularekin bat etorriz. Foru arau horren bidez, bide azpiegiturak erabiltzeko kanona arautu eta Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA foru sozietate publikoaren zerga araubide juridikoaren zenbait alderdi arautzen dira.

II. TITULUA

SISTEMAK ESKURATUTAKO DATUEN TRATAMENDUA

15. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

1. Free flow sistema kudeatzeko, foru arau honen arabera kanona ordaintzera behartuta dagoen ibilgailuaren titulartasunari lotutako datu pertsonalak tratatu behar dira, kanon hori kobratzeko xedez.

2. Datu tratamenduaren helburua izango da aipatu sistemapeko azpiegitura hori erabiltzeagatik dagokien kanona ordaintzera behartuta dauden ibilgailuak hautatzea, eta, zehazki, honako hauek: kanona kobratzeko prozesuak gauzatzea; fakturak egitea; ez ordaintzeak eta arau-hausteen ondorioak kudeatzea; egindako Kudeaketa egiaztatzea, diskrepantziagatik, desadostasunagatik edo akatsagatik erreklamazioak jartzen badira; eta bide zati hori erabili bai baina kanona ordaindu behar ez duten ibilgailuak baztertzea.

3. Jasotako datu pertsonalak ez dira erabiliko foru arau honetan aurreikusi ez den beste inolako helburuetarako.

Azpiegituraren erabilerari edo zerbitzu kalitateari buruzko estatistikak egiteko, ezabatu egingo da artikulua honen aurreko zenbakietan identifikatutako xedeak betetze aldera jasotako informazio pertsonal guztia.

4. Artikulu honetan deskribatutako tratamenduen ardura Gipuzkoako Foru Aldundian bide azpiegituren arloan eskumena duen departamentua izango da.

16. artikulua. Bildutako datu pertsonalak.

1. Aurreko artikuluan adierazi diren xedeak betetzeko, datu pertsonal hauek behar dira: free flow sistemaren arkuak zeharkatzen dituen ibilgailuaren matrikularen irudia; ibilgailuari lotutako ordainbidea; bidaiari lotutako eguna eta ordua, eta ibilgailuaren titularraren identifikazioa; free flow sistemako alta edo erregistroa; eta informazioaren titularrek eskatu ahal dituzten fakturak egiteko behar diren datuak.

2. Gainera, datu pertsonalak ez diren beste informazio batzuk ere jaso ahal izango dira, hala nola matrikulazio herrialdeari, ibilgailuaren marka eta modeloari, kategoriari eta fitxa teknikoari buruzkoak.

2. Tal infracción será sancionada conforme a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa.

3. Será responsable del impago del canon la persona titular del vehículo; o la persona conductora habitual, en el supuesto de que el arrendamiento a largo plazo constase en el Registro de Vehículos de la Dirección General de Tráfico.

Artículo 14. Uso de los fondos recaudados.

1. Los fondos recaudados por los tránsitos de los vehículos de motor o conjunto de vehículos articulados, destinados o utilizados exclusivamente para el transporte de mercancías por carretera y con un peso máximo autorizado superior a 3,5 toneladas, se destinarán a cubrir los costes de operación del sistema, los costes de conservación ordinaria y extraordinaria de la infraestructura de la autovía A-636, así como a la mejora de la misma y los servicios asociados.

2. Los restantes fondos recaudados, además de financiar lo señalado en el apartado anterior, se destinarán a la financiación de las actuaciones de política de infraestructura viaria que efectúe Bidegi SA, de acuerdo con el artículo 2 de la Norma Foral 7/2002, de 3 de octubre, por la que se regula el canon de utilización de infraestructuras viarias y se regulan determinados aspectos del régimen jurídico tributario de la sociedad pública foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.».

TÍTULO II

TRATAMIENTO DE DATOS OBTENIDOS POR EL SISTEMA

Artículo 15. Tratamiento de datos personales.

1. La gestión del sistema free flow requiere el tratamiento de datos personales vinculados a la titularidad del vehículo obligado al pago del canon conforme a la presente norma foral, y con la finalidad de gestionar su cobro.

2. Dicho tratamiento tiene por objeto seleccionar los vehículos obligados al pago del canon correspondiente al uso de la infraestructura viaria sometida a dicho sistema y, en concreto: la ejecución de los procesos de cobro del canon, emisión de facturas, gestión de pagos y consecuencias infractoras; verificación en caso de reclamaciones por discrepancia, disconformidad o error con la gestión efectuada, así como de exclusión de vehículos no sujetos al pago que utilizan este tramo viario.

3. Los datos personales obtenidos no se utilizarán para finalidades distintas a las previstas en esta norma foral.

Para la elaboración de estadísticas relativas al uso de la infraestructura y/o calidad del servicio, será eliminada cualquier información personal que haya sido recabada para las finalidades identificadas en los números precedentes del presente artículo.

4. El responsable de los tratamientos descritos en este artículo es el departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de infraestructuras viarias.

Artículo 16. Datos personales recabados.

1. Para la consecución de las finalidades identificadas en el artículo anterior, los datos personales necesarios son: la imagen de la matrícula del vehículo que atraviesa los pódicos del sistema free flow; el medio de pago vinculado; la fecha y hora vinculada al tránsito y la identificación de la persona titular del vehículo; el alta o registro en el sistema free flow así como los datos necesarios para la emisión de las facturas que soliciten las personas titulares de la información.

2. Además, podrá recabarse información adicional que no constituye datos personales, como es la relativa al país de matriculación, la marca y modelo del vehículo, su categoría y su ficha técnica.

3. Datu pertsonalak ez dira jakinaraziko, eta ez dira hirugarrenen esku jarriko, non eta ez den legezko arau bat betetzeko edo zerbitzuari euskarria emateko.

17. artikulua. Datu pertsonalak gordetzeko epeak.

1. Ordaintzera behartuta ez dauden ibilgailuei buruzko datuek aldi baterako tratamendua izango dute: bide-ardatza erabiltzeagatik dagokien kanona ordaindu beharrik ez dutela egiaztatuta arte behar-beharrezkoa den denboran soilik.

2. Joan-etorria egiteko unean, ibilgailuak free flow sistemari lotutako beste ordainbiderik ez badu, Diputatuen Kontseiluak erabaki bidez zehaztutako AP-8 autobideko edo AP-1 autobideko bidesari bideratuko ordainleketan erabilitako banku-xartela kobratzeko erabiliko da.

Txartel hau erabiliko da bidesari bideratua kobratzeko estazioetatik igaro aurreko edo ondoko 4 orduetan A-636 errepidean egindako igarotzeak kobratzeko, zirkulazioaren noranzkoaren arabera.

3. Jasotako datuak gordeko dira kanona kobratzeko behar den aldirako soilik; eta, prebentzioz, ordaintzeko obligazioa sortzen den egunetik hasi eta urtebetez, jar litezkeen erreklamazioei erantzuteko. Urtebeteko epe hori igarota, datuak blokeatuta geldituko dira, legez dagozkion akzio administratibo edo judizialen preskripzio epea bete arte.

18. artikulua. Zilegitasun titulua.

Garatutako jarduerak bildutako eta sortutako datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa edo zilegitasun titulua da Gipuzkoako Foru Aldundiari datu pertsonal horien tratamenduari arduradun gisa emandako botere publikoak erabiltzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lehenengo xedapen gehigarria. Diputatuen Kontseiluari baimena ematea.

Diputatuen Kontseiluari baimena ematen zaio berak erabaki dezan zein egunetatik aurrera hasiko den kobratzen foru arau honetan arautzen den kanona. Nolanahi ere, data hori ez da izango 2022ko ekainaren 30a baino beranduago.

Bigarren xedapen gehigarria. Aplikagarri diren deskontuak eta hileko gastu muga.

1. Ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu-Arauak, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian erabiltzeko kanonak ezartzekoak, 2. artikuluan aurreikusitako deskontuak aplikatuko zaizkie kanona ordaindu behar den A-636 autobidearen zatietako erabiltzaileei, baldin eta aipatutako artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Deskontu horiek aplikatzeko, A-636 autobidean lehenengo arkitik azken arkura igaro arte gehienez 20 minutuz egiten diren bidaiak, noranzko berean, bidai bakartzat hartuko dira, zein tartetatik igarotzen diren kontuan hartu gabe.

3. Ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu-Arauak, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian erabiltzeko kanonak ezartzekoak, 3.bis artikuluan aurreikusitako Deskontu Planari atxikitako pertsonentzako hileko gastu muga aplikatuko zaie kanona ordaindu behar den A-636 autobidearen zatietako erabiltzaileei, baldin eta foru dekretu-arau horren 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Amaierako lehen xedapena. Erregelamenduzko garapena.

Diputatuen Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenen eman ditzan.

3. Los datos no serán comunicados o no serán accesibles a terceros, salvo en el cumplimiento de una norma legalmente exigible o para dar soporte al servicio.

Artículo 17. Períodos de conservación de los datos personales.

1. Los datos relativos a los vehículos no obligados al pago serán objeto de un tratamiento temporal durante el tiempo estrictamente necesario para descartar la obligación de pago del canon derivado del uso del eje viario.

2. Cuando en el momento de efectuar el tránsito el vehículo no tenga otro medio de pago asociado en el sistema free flow, se utilizará para efectuar el cobro la tarjeta bancaria utilizada en las estaciones de cobro del peaje canalizado de la autopista AP-8 o autopista AP-1 que determine el Consejo de Gobierno Foral mediante acuerdo.

Esta tarjeta se utilizará para el cobro de los tránsitos realizados en la A-636 durante un período de 4 horas anteriores o posteriores a la realización del tránsito por las estaciones de cobro del peaje canalizado, en función del sentido de circulación.

3. Los datos recabados se conservarán durante el tiempo estrictamente necesario para realizar el cobro del canon y, preventivamente, durante el período de un año a partir de la fecha de generación de la obligación de pago, para atender a la reclamación que pudiera derivarse, momento en que pasarán a bloqueo durante el plazo de prescripción de las acciones administrativas o judiciales que legalmente correspondieran.

Artículo 18. Título de licitud.

La base jurídica o título de licitud habilitante para el tratamiento de los datos personales recabados y generados por la actividad desarrollada es el ejercicio de poderes públicos conferidos a la Diputación Foral de Gipuzkoa como responsable del tratamiento de dichos datos personales, en virtud de lo dispuesto en el artículo 6.1.e) del Reglamento General de Protección de Datos.

Disposición adicional primera. Autorización al Consejo de Gobierno Foral.

Se autoriza al Consejo de Gobierno Foral para que determine la fecha de inicio de cobro de acuerdo a la presente norma foral. Dicha fecha no podrá ser posterior al 30 de junio de 2022.

Disposición adicional segunda. Descuentos aplicables y límite mensual de gasto.

1. Los descuentos previstos en el artículo 2 del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, serán de aplicación a las personas usuarias de los tramos de la autovía A-636 sujetos a pago de canon que cumplan los requisitos establecidos en el citado precepto.

2. A fin de aplicar dichos descuentos, los viajes que se realicen en la autovía A-636 durante un periodo máximo de 20 minutos desde el paso por el primer pórtico hasta el paso por el último pórtico, en el mismo sentido, se computarán como un único viaje independientemente de los tramos por los que se transite.

3. El límite mensual de gasto para las personas usuarias adheridas al Plan de Descuentos previsto en el artículo 3.bis del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, será de aplicación a las personas usuarias de los tramos de la autovía A-636 sujetos a pago de canon que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 2 de dicho decreto foral-norma.

Disposición final primera. Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejo de Gobierno Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de esta norma foral.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau indarrean jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

La presente norma foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.